

XagunArtea

2010eko uztailaren 20a

Xagun aldizkaria

55. alea

Kontxiren agurreko herri-festa



Kontxi Errastik, azken 27 ikasturteetan Zeraingo irakasle izan denak, erretiroa hartu du. Hori dela-eta, urte hauetan egindako lana eskertzeko herri-festa antolatu da datorren uztailaren 23rako. Iluntzeko 7:30etan hasiko da festa plaza herriko trikitilari gazteen ongietorriarekin. Ondoren, Kontxiren ikasle izan diren gaztetxoek dantza batzuk egin eta bertso pare bat kantatuko dituzte. Jarraian, Uharka abesbatzak hainbat kanta abestuko ditu. Festarekin amaitzeko, artepean argazkia aterako dugu bertaratutako guztiok eta mahaiaren bueltan meriendatxo ederra egiteko aukera izango dugu.

Herritarren I. pelota txapelketa puri-purian



Aurten lehen aldiz herritarren arteko pilota txapelketa ari da jokatzen Zeraingo plazako pilotaleku txikian. Guztira 21 herritarrek izena eman dute eta lau multzotan ligaxka jokatzen ari dira uztailean zehar. Multzo bakoitzeko lehen biek aurrera egingo dute eta final-laurdenak jokatuko dituzte. Finalurrekoak abuztuaren 13an jokatuko dira eta finala Andramari eguerdian. Beraz, ikuskitzuzun bikaina daukagu egunotan, trankiz beteriko herriko frontoi txikian.

Nekatuta pasa ziren herritik Ehunmilako lasterkariak

Beasainen aurten lehen aldiz antolatutako Ehunmilak (167km) lasterketa Zeraindik pasa zen uztailaren 17an eta 18an, helmugarako 10kmren faltan. Probaren ibilbide laburra (80 kilometrotik gorakoa) egin zutenak larunbat eguerdian hasi ziren pasatzen. Lasterketa luzeko lehena berriz, arratsaldeko 17:30etan pasa zen eta azkena igande eguerdiko 14etan. Probaren aitzakian, herrian giro polita sortu zen eta jendeak tertulia ederak egiteko aukera izan zuen korrikalari nekatuak animatuz.



Andramari jaiak 2010

Gain-gainean ditugu aurtengo herriko festak. Hilabete baino gutxiago geratzen da Andramarietarako. XAGUARTEAK aurtengo jaien egitaraua aurreratzen die herritarrei:

Abuztuak 13.

- *Arratsaldeko 6etan: pilota txapelketako finalaurrekoak
- *Arratsaldeko 8etan: ohiko gibel-jatea Liztormendi elkartearen

Abuztuak 14: ANDRAMARI BEZPERA

- *Goizeko 11etatik aurrera: umeentzat puzgarriak egongo dira plazan egun guztian
- *13:30etan: haur-bazkaria
- *16:30etan: jaialdia (mozorroak, antzerkiak...) eta jolasak
- *Ondoren: merienda
- *Arratsaldeko 8etan: pregoia, suziriak eta kanpai-bueltakoak festei hasiera emateko.
- *Segidan: sagardo-edana eta txekor-jana. Bitartean trikitilariak
- *Gauetan: erromeria Trakets taldearekin goizaldera arte.

Abuztuak 15: ANDRAMARI EGUNA

- *Goizeko 9etan: txistularien goiz-eresia etxez etxe.
- *Goizeko 11etan: Meza Nagusia
- *Goizeko 10etatik aurrera: Andra

Mari bola txapelketaren hasiera.

- *Eguerdiko 12etan: pilota txapelketako finala
- *Eguerdiko 12:30etan: txakolin dastatzea
- *Arratsaldeko 5etan: bola txapelketaren bigarren saioa
- *Arratsaldeko 6etan: herri kirolak.
- *Arratsaldeko 7etan: 45 urtetik gorakoen VI. dantza txapelketa.
- *Iluntzeko 7:30etatik aurrera: gazteen triki-poteoa trikitilariekin.
- *Gauko 9etan: gazte-afaria
- *Gauko 11etan: erromeria Zesuma taldearekin.
- *Goizeko 1ean: asto-karrera
- *Ondoren: erromeria goizaldera arte.

Abuztuak 16: SAN ROKE EGUNA

- *Goizeko 9etan: txistularien goiz-eresia etxez etxe.
- *Goizeko 10etan eta arratsaldeko 5etan: San Roke bola txapelketaren hasiera.
- *Goizeko 11:30etan: Meza Nagusia
- *Ondoren: herriko agintarien dantza-soka.
- *Eguerdiko 13etan: gazta probatzea.
- *Arratsaldeko 5:30etan: Herriko gaztetxoaren arteko pilota partidak
- *Iluntzeko 8:30etan: Herri afaria, bertsolariak lagunduta.
- *Ondoren: erromeria Alaiki taldearekin.

Palestinarrak gurean



Palestinako errefuxiatu kanpamentuetan bizi den haur talde bat Zerainen dugu egunotan. *Oporrak bakean* programaren bitartez eta Goierriko hainbat Udalen laguntzaz etorri diren haurrok herriko albergean ditugu uztailearen 10etik hilaren amaiera arte. Euren jaioterrian duten gatazka egoeratik aldendu eta egun batzuk hemengo lasaitasunean eta jolasean goza dezaten da helburua. Ramalah eta Nabus-eko kanpamentuetan oso baldintza kaskarretan bizi dira ume hauek. Hala ere, irrifarrea ahoan dutela ikusten dira herrian.

Ostatu utziko du Anak

Azken urteotan Ostatu aldean hainbat otordu goxo eta momentu on eskaini dizkigun Ana Insausti mutiloarrak Ostaturen ardura utziko du uda honetan. Hori dela-eta, Ostatu kudeatzeko esleipen-prozesua martxan jarri da eta ikusi egin beharko da etorkizunak zer dioen.

Eskerrik asko Ana eta zorte on!



Argazkian batzuk falta dira

Oa kultur elkarteak antolatuta eta Fotoetxek gidatuta, argazkilaritza ikastaroa egin dute 10 herritarrek. Aurrerantzean ez dugu argazkirik faltako!

Antxumadu

Behin baino gehiagotan entzun omen du Elenak, Zeraingo herrian: horko hori "besoak antxumaduta dago". Zer ote da *antxumadu* hori? Hortik atera dugu gaia, hil honetako artikuluxka prestatzeko. Saiatu da Elena, herritarrei galdetzen: "ba al dakizue *antxumadu* (*antxumatu*) zer den?". Zahar eta gazte, askotxori galdetua izan behar dio. Etxe askotan, alferrik: zaharrek ere ez dakite hitz hori zer den. Beste batzuetan, aldiz, zaharrek badakite baina adin batetik beherakoek ez. Xelebrea da hori, hain herri txikia izanik Zerain. Zergatik etxe batzuetan badakite *antxumadu* edo *antxumatu* zer den, eta beste batzuetan ez? Miraketan ibili da Elena, eta ondorio argi samarrera iritsi dela iruditzen zaio. Zeraingo etxe batzuk artzantzan jardundakoak dira belaeuz belaeun; beste batzuk ez dira artzantzan jardundakoak: ez, behintzat, beste horien pare. Artzantzan ibilitako etxeetan akordatzen omen dira argien, *antxumadu* zer den. Zer pentsatua eman dio horrek Elenari. Ez dabil oker, nire ustez.

Hiztegiara jo dugu, hurrenik, hitzaren aztarrenak bilatu nahirik. Berehala aurkitu dugu erantzuna: norbaitek besoak tolestaturik, kruza-tuta, dauzkala esan nahi omen du *antxumadu* horrek. Bere forma nagusian, antxumatu moduan alegia, honako hau dio: "cruzar los brazos, las piernas,..". Adibide mordoa ematen du hiztegiak, hitz horrena. Adibide asko bai, baina ia guztiak autore bakarrarenak: Orixe zenaren adibideak dira, izan ere, OEHk eskaintzen dituen bat izan ezik guztiak. 1917ko *Euskal Esnalean*, batetik, esaldi hau ageri da: "Ta gu, besuak antxumatuta geren etxian geratuko gera?. Orixeren lanetan, bestetik, adibideok ikus litezke beste gehiagoren artean: "lau mosrdoskan eseririk, zangoak antxumaturik"; "Ontan arrebak eskuak antxumatu zitun eta arnas aundi bat atera, lurrera begiraturuz"; Gotzon Garatek ere badu halakorik jasoa, bere bilaketan. Azpeiti aldean, esate baterako, honako hau jasoa



Gazteek ere antxumatzen dituzte besoak, nahiz horrela ez deitu

dauka: "Besoak antxumatuak".

Ez da beraz Zeraingo etxe batzuetako kuriosidadea, hitz horren erabilera. Azpeiti aldean hasi eta Orixeren iturburu nagusi ditugun Oresa eta Uitzu aldeetara hedaturik egon dela dirudi hitz horrek. Horraino bakarrik ez: artzain-kultura bizirik egon den beste hainbat herritan ere, Zerainen esate baterako, bere lekua izana du hitzak orain puntura arte. Zerainen orain ere hitz hori ezaguna duten etxeetan, dakitenen eta ez dakitenen arteko muga 50 urteen iguruan dagoela iruditzen zaio Elenari. Hortik gorakoek erabiltzen dute nonbait (edo akordatzen dira behintzat hitzaz), baina hortik beherakoek ez. Etxe horietan artzain-kulturak noiz gainbehera egin duen, eta jendea fabriketara edo bestelako lanbideetara hurbildu den ikusita ondorio argiak aterako genituzke seguruenik.

Gatozen hitzaren barne-osaera aztertzeraz. Lotura zuzena du forma horrek, hasteko, bere jatorri dirudien *antxuma* hitzarekin. Zer da *antxuma* hori? *Antxumeren* aldaera edo bariantea. Hots, Euskal herri gehienetan aski ezaguna den hitza, gaztelaniazko *cabrito*, *chibo*, *choto* eta frantsezko *chevreau*, *cabri* direlakoan parekoa. Eta horra: antxumeak hankak tolesteko forma berezia omen du, arkumeek ez bezalakoak. Antza denez, gizakiok besoak tolestean edo kruzatzen ditugun moduan biltzen ditu antxumak bere aurreko hankak.

Artzain-kultura gertutik ezagutzen dutenentzat eguneroko metafora argia da, hortaz, "halakok besoak *antxumaduta* dauzka" esatea: pertsona batek besoak antxumaturik (antxumaduta) dauzkala esaten dutenean, "etxeo antxuma txikiek bezala" esan nahi dute.

Nork ditu ordea etxean antxumeak, gaur egun? Inork gutxik. Nork daki, egungo egunean, antxumeek aurreko hankak nola tolestean dituzten? Ia inork ez. Hori da kontua: ez jakitetik dator ez erabiltzea. Antxumak hankak nola tolestean dituen ez badakigu, zer metafora egingo dugu "Asierrek besoak *antxumaduta* dauzka" esanez? Nork entendituko digu? Metaforaren oinarri materiala galdu egin zaigu eta, horrenbestez, ezin gara metaforaz baliatu. Ez, behintzat, lehen bezala jakinaren gainean. *Antxumadu* hitzak bizirik jarraituko du agian, beste belaunaldi biz edo hiruz, baina artzain-kulturako hizkera galduz doan neurrian erreferentziarik gabe geldituko da esaera hori. Eta jakina: erreferentzia argirik gabeko hizkera moduak lehen kandidatu dira, belaunaldi honetan ez bada hurrengoan galtzeko. Horra, labur-labur, hitzen gainbehera zergatik gertatzen den, eta bereziki nola, antzemateko beste adibide bat bilatu. Usaimen fina du Elenak.

Mikel Zalbide eta Elena Mendizabal



Xagu-txoko



Babesetik

EKAINA	al	ar	az	og	or	lr	ig
		1	2	3	4	5	6
Euria (l/m)		0	0	0	0	1,5	3,5
C° altuena		31	26	30	31	35,5	17
C° baxuena		13	13	8	10	15	15
	7	8	9	10	11	12	13
Euria (l/m)	0	6	0	17	6	12	4
C° altuena	31	26	25	23	23	19	20
C° baxuena	11	12	13	12	14	13	14
	14	15	16	17	18	19	20
Euria (l/m)	7,5	10	63	8	0,5	15	1
C° altuena	19	20	15	14	19	22	20
C° baxuena	13	11	12	10	11	13	12
	21	22	23	24	25	26	27
Euria (l/m)	0	0	0	0	0	0,5	0
C° altuena	23	27	29	31	34	33	30
C° baxuena	12	8	7	9	11	15	15
	28	29	30				
Euria (l/m)	0	0	0	GUZTIRA: 155,5 L			
C° altuena	31	31	33	ALTUENA: 35,5°			
C° baxuena	15	13	12	BAXUENA: 7°			

Ekainean giro bikaina

Ekaina giro ederrarekin joan zaigu, egun batzuetan eguzkiak bikain berotu du 35º taraino, baina gauak fresko samarrak egin dituzenez ondo agoantatzeko moduko eguraldia izan da. Euria ere bere neurrian izan dugu, azken 11 urteetako gehiena. Izan ere, hilaren 16an, Aizpea auzoan 63 litro izan ziren; bada zerbait egun baterako! Beroa eta euri pixka batekin horrelako onddoak irtetzen dira Zerain aldean (ez dugu zehaztuko non).



San Joan bezpera eta Mutiloara jaitsiera



Urteroko moduan San Joan bezpera eta Mutiloako jaitsiera ospatu ziren ekainaren 23an eta uztailearen 2an. Bat eguraldi onarekin eta bestea aterkipean.

Herri-bilera irailaren 21n

Joan den ekainaren 22an egin zen azkeneko bilera. Guztira 70 bat herritar izan ginen hitzordu hartan. Bertan hala erabakita, hurrengo herri-bilera irailaren 21ean egingo da iluntzeko 7etan. Gaia: hurrengo udal hauteskundeetarako nola antolatu.

Festetako azken montajerako deia

Aurtengo Andramari jaiak ere gainean ditugu. Festetako azken prestaketak eta lanak egiteko, prest dauden herritar guztiei Kultur Elkarteak dei egiten die abuztuaren 10ean, iluntzeko 7etan Kultur etxera ager daitezten festarako eta lanerako gogoarekin.

Uztailean hurrekin denbora librea lantzen

Urteroko moduan, guraso elkarteak antolatu eta Kultur elkarteak lagunduta, herriko 16 ume uztaileko denbora libreko ekintzetan parte hartzen ari dira herriko 5 monitorerekin.